

SexBerdin Hiruburua

LGTBI+ gazte kolektiboaren egoera, zailtasun eta erronkei buruzko eztabaida-dinamika

Ebaluazioa eta lortutako proposamenak



Antolatzailea:



Launtzaileak:



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

SexBerdin Hiruburua: ebaluazioa eta lortutako proposamenak

Hiruburua: eztabaida-dinamika eredu bat

Hiruburua EGK-k eta Gasteizko Udalak urteetan burutu ohi duten eztabaida-dinamika eredu konkretu bat da. Honetan, hiru eragile mota elkartzen dira: politikariak, teknikariak eta gazteak.

Hiru profiletako pertsonak gazteen interesekoak diren edo gazteen egoeraz hitz egiten duten gai konkretuez eztabaidatzeko biltzen dira. Protagonista bakoitzak ezagutzen duen errealitatearen ikuspegitik hitz egiten du. Era honetara, guztien artean egoeraren hobekuntzarako proposamenak lortzen dira.

Eztabaida-dinamika eredu honetan EGKren zubi-lanaren ideia hartu eta errealitate egiten da. Administrazioetako kudeatzaileak eta gazteak elkarriketa zuzenean jartzen ditu. Eztabaida abiapuntu eta proposamenak eraikitzea helburu, guztion artean, hori da Hiruburu bat.

Sexberdin Hiruburuaren parte-hartzea

Hiruburu hau EGK-k eta Gasteizko Udalak burututako laugarrena izan da. Bakoitzean gai desberdinak jorratu dira eta kasu honetan LGTBI+ gazte kolektiboaren egoera, zailtasunak eta erronkak izan dira eztabaidagai.

Honen kudeaketarako EGK-ko 3 teknikari izan dira bertan, dinamikaren antolatzaile eta moderatzaile lanetan: Berdintasun, Parte-hartze eta Enplegu eta Etxebizitza arloetako teknikariak.

14 pertsonen osatu zen taldea:

Parte-hartzaileen taula

Papera Hiruburuan	Identitatearen arabera	Jatorria
4 politikari (azken momentuko huts egite bat)	Emakumeak: 1 Gizonak: 3	EAJ, EH Bildu, Irabazi eta Podemos-Ahal dugu.
7 teknikari (hauetariko bi Udalarekin elkarlanean garatzen diren proiektuetakoak)	Emakumeak: 4 Gizonak: 3	Gazteria, Berdintasun, Hezkuntza eta Segurtasun sailletako teknikariak. Hala nola, Aldarte Kualitate taldeko eta Asexoriako teknikari bana.

**4 pertsona gazte (azken
momentuko 4 huts egite)**

Emakumeak: 1

Gizonak: 3

Errespetuz, Aldarte eta
EKOko gazte bana eta
elkartegintzan ez dabilen
gazte bat.

Identitatearen ikuspegitik talde parekidea lortu zen. Era berean, profil desberdinak begiratu, anitza ere bazen taldea lortu zela argi gelditzen da. Azkenik, aipatu beharra dago bazeudela identitateari zegokionez barne-oreka mantentzen ez zuten taldeak: politikarien taldea eta gazteena.

Hiruburuaren hasiera: gaiak lantzeko pistak

LGTBI+ gazte kolektiboaren egoerari buruzko Hiruburu honetan bertako nahiz Autonomia Erkidegoko mailako baliabideez hitz egin zen testuingurua hobeto ulertzeko.

Lehenik eta behin, Maria Alvarez-Rementeria Alvarez ikerlariak 'Hezkidetza eta sexu-heziketako irakasleriaren formakuntza jarraitua. Genero ikuspegiko analisi bat' ikerketaren bere ondorioak partekatu zituen. Honetan formakuntza jarraituaren gabeziak ikusten ziren: gai honi buruz formakuntza jasotzen duen irakasleriaren proportzio baxua, ikastaroen iraupen laburra eta formakuntza horretan sakontzeko ezgaitasuna.

Bigarrenik, Aldarte Kualitate ikerketa taldearen lana aurkeztu zen, Gasteizko LGTBI+ kolektiboaren diagnosia egiteko oinarria dena. Ikerketa bera abian da eta ondorioak urte bukaerarako argitaratu eta aurkeztu ahal izatea da helburua. Ikerketa honi dagokionez abiapuntutzat jo duten kontzeptutako bat azpimarratu beharra dago: interseksionalitatea. Alegia, hainbat bereizketa faktorek topo egitean sortzen den egoera konkrituak sortzen direla eta, ondorioz, hauengan arreta ezarri behar dela.

Azkenik, Gasteizko Udalaren Asexoria izeneko zerbitzuko ordezkariaren txanda iritsi zen. Honetan, pertsona guztiak barne-hartzen dituen Aniztasunaren kontzeptuaz hitz egiten jarraitzeko garrantzia azpimarratu zen, Aniztasun horren parte batek bereizketak jasaten dituela argi utziz.

Lortutako ondorio eta proposamenak

Jarraian, mahai bakoitzaren eztabaida saio guztietatik ateratako ondorio nagusiak azalduko dira, ondorio orokor batzuekin bukatuz.

LGTBI+ gazte kolektiboaren zailtasunak

Hasieratik kolektiboaren zailtasun nagusi gisa identifikatzen dira bai bereizketa nahiz Indarkeria LGTBI+obikoa. Hau izan baita gazte kolektiboak berriki hirian bizi izan duen arazoetako bat.

Zentzu honetan, kezagarritzat jo ziren:

- Orokorrean bereizketa eta Indarkeria LGTBI+fobikoak duten ikusezintasuna.
- Legez ezarri daitekeen larrigarriari buruzko ezjakintasuna salaketak jasotzen dituzten Udaltzaingoaren partetik.
- Kasuak alde batera aztertzen dituen ikerketaren gabezia.

Bereizketa zuzena eta ezjakintasunak eragindako bereizketa ez-zuzenak identifikatu ziren, hortaz, egoera hauen eragile bezala. Honen aurrean, gizarte eraldaketaren garrantzia azpimarratu zen.

Eman beharreko hainbat pausu identifikatu ziren, garrantzitsuak eta ezinbestekoak guztiak, baina esfortzu maila desberdina eskatzen dutenak:

- Formakuntza

LGTBI+ kolektiboarekiko arreta eskaintzen duten profesional guztien formakuntza beharra ukaezintzat jo zen. Bereziki, profesionalak Indarkeria LGTBI+fobikoa egoera baten aurrean arreta eskaini behar dutenean.

Oinarritzkoena litzateke Udaltzaingoen zein delitu motaren aurrean dauden argi identifikatzea. Honetaz gain, premiazkoa da Gizarte Zerbitzuen arloan lan egiten dutenek ere formakuntza izatea, hala nola, arreta sektore honetan lan egiten duten pertsona guztien gutxieneko gaiarekiko sentsibilizazioa.

Izan ere, sentsibilizazioa gizarte mailara ere zabaldu beharko litzateke. Honetarako, kanpainak aipatu dira baliabide bezala. Hauen helburua izango litzateke Indarkeria LGTBI+fobikoarekiko ahobatezko errefusa sustatzea.

- Protokoloen sorrera

LGTBI+fobiari erantzuna emateko beharrezkoak diren baliabideen artean identifikatu ziren protokoloak. Ez soilik Indarkeria LGTBI+fobikoaren salaketa publikorako protokoloak, beste batzuk ere garrantzitsu bezala azpimarratu ziren:

- LGTBI+fobikoa den eraso baten aurrean arreta egokia eskaintzeko protokolo integrala: hainbat profesionalentzat baliagarria izango dena eta jokaera irizpideak jasotzen dituena.
- LGTBI+fobia dela eta bereizketa egoera larrian dauden pertsona gazteei laguntzeko protokoloa: babesgabetasun egoeran bukatzen duten LGTBI+ kolektiboko gazteei erantzuna ematea ahalbidetuko duten jokaera irizpideen protokoloa.

Honekin batera, diagnosi desberdinek LGTBI+ kolektibo gaztearen beharrengan arreta berezia ezartzea premiazkoa dela esan beharra dago.

- Tratu egokia ziurtatu

Kolektiboak bizitako bazterkeria eta indarkeria egoerei era egokian erantzun ahal izateko formakuntza espezifiko eskaintzea ere beharrezkoa litzateke. Arreta eskaintzen lehenak diren langileentzat bereziki: Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoa, osasun arloko langileria...

Biktinekiko onarpen jarrera, itxaropen mezuak helaraztea eta babes erreferentea izatea garrantzizkoa da. Era honetara lortuko litzateke gizarte epaiketarik ez ematea eta birbiktimizaziorik ez ematea.

Enpatia eta gertutasuna ezinbestekoak dira eta nahiz eta hauek denboraz gehiago lantzen diren gaitasunak izan, bai formakuntza nahiz gomendio orokorren giden bitartez garatu daitezke baita ere.

Era berean, LGTBI+ kolektibo gaztearen duintasuna bermatzen dela ziurtatzeko, ezinbestekotzat jo zen prozedura guztietan akonpainamendua eskaini ahal izatea eta, horrela, jarraitutasuna duten esku-hartzeak burutzea.

Aniztasunari buruzko hezkuntza

Aniztasuna lantzeko hezkuntzaren ildotik proposamenak jorratu ahal izateko, lehenik, egun dagoen hezkuntza eskaintzaren akatsik larrienak identifikatu ziren bi taldeetan:

- Ez da gela eta ikastetxe guztietara iristen.
- Jarraipenik eta dinamismorik gabeko tailer laburrak.
- Ikastetxeetako eragile guztiak ez ditu kontuan izaten (irakasleria, familiak...).
- Materiala eta edukia ez da beti barne-hartzailea.

Honi aurre egiteko, sexu-heziketaren eredu ideal batetarako proposamenak landu ziren, kontziente izanik oraindik ere bide luzea dagoela hau egia bilakatzeko. Helburua hori izanik, bidea pixkanaka diseina daiteke:

- Sexualitatearen kultura eraldatzea baimenduko duen sexu-heziketa eredu sakon bat landu behar da, Aniztasuna balore positibo gisa ulertzea ahalbidetuko duena.
- Osasun ikuspegitik eta testuinguru heterosexualetik haratago doan sexu-heziketa bultzatu behar da. Adibidez, egun erotikak oso dimentsio txikia hartzen du eta ezinbestekoa da desira nahiz hauen garapenari buruzko heziketa ere izatea.
- Ikastetxe baten inguruan dauden eragile guztiak eta adin-txikiko, nerabe nahiz gazteokin harremana izango duten profesional eta familia kide gehienak inplikatzeko dituen. Gutxienez, aurretiazko eta osteko bilerak burutuz baina informazioa emateko haratago doazenak.
- Aniztasunaren kontzeptua oinarri, parekidetasuna da sustatu beharrezkoa. Hortaz, bakoitzaren desberdintasunak kontuan dituen eta bereizketei erantzunez ekiten duen

gizarte bat da beharrezkoa. Berdintasun erreala ziurtatzen duena bereizketen gainean ekinez.

- Zientifikoa, alegia, sexologikoa, izan beharko litzatekeela. Informazioa partekatzeko eremu gisa eta ez heziketa moral gisa ulertua.
- Curriculumean txertatzea, ikastetxe oro inplikatzeko eta derrigorrezko bilakatzea. Honetarako irakasleriaren motibazioa bultzatzea oso garrantzitsua da.

Elkartegintzaren erronkak

Hainbat izan ziren gai honek piztutako zalantzak eta galderak. Alegia, ekintza edo proposamen konkretuak baino, ondorioztatu zen badagoela elkartegintza eta beste parte-hartze eredu batzuei buruz gazteekin egin beharreko gogoeta eta elkarrizketa bat.

Orokorrean, egoeraren analisi nahiko negatiboa egiten da:

- Elkartegintza gazteen artean bere momenturik txarrean dago: gazteak ez dira normalean animatzen elkarte berriak sortzera eta belaunaldi ordezkapena ez da ematen.
- Instituzionalizazioak nahiz prozedura burokratikoak egungo gazte mugimenduentzat oztopo dira; bat-batekotasunak eta behar puntualen inguruko mugimenduak ohiko elkartegintzan baino gehiago ematen direlako.
- On-line espazioek elkarteek LGTBI+ kolektiboari eskaintzen zizkieten hainbat gizarteratze esparru ordezkatu dituzte, anonimotasunak ematen duen erosotasun eta segurtasunagatik.
- LGTBI+ kolektiboari dagokionez konkretuki, elkarteek burutzen zituzten hainbat gizarteratzeko espazio egun on-line espazioek ordezkatu dituzte, anonimotasun horrek ematen duen erosotasuna oso garrantzitsua delako.
- Elkartegintza hiriburuen inguruan zentratzea herri txikiagoetan dauden gazteentzat oztopo bat da.

Esan bezala, proposamen itxiak baino, hainbat galdera eta aukera agertu ziren elkartegintzaren gaiarekiko:

- Ikusita parte-hartze eredu tradizionalak (elkartegintza, hauen artean) ez dutela gazteen hainbeste interes erakartzen, eredu berrietan formula berriak asmatu beharko dira? Sare sozialak parte-hartzerako bide berria izango dira? Eredu tradizional eta berrien arteko eredu hibridoak egin beharko dira?
- Posible eta onuragarria al litzateke LGTBI+ kolektiboak askatasun sexualaren aldeko elkartegintzako beste sektore batzuekin indarrak batzea?

- Esperientzia pertsonalen partekatzeak konplizitatea sortzeko tresna gisa, elkartegintza sustatzeko balio al dezake?
- Lagunduko ote du ikastetxea komunitate-espazio gisa erabiltzeak elkartegintza sustatzeko?

Azkenik, arlo honetako zailtasunekin harremanetan dauden hiru gai aipatu ziren:

- Komunitate-sentimendua eta izate-sentimenduaren egoera egun.
- Berdintasunaren irudikeriaren arazoa: gizarteak orokorrean eta gazteriak konkretuki sarritan uste izan ohi du Berdintasun egoera bat lortua dagoela jada, bereizketa eta indarkeria egoerak ez direlako orain dela urte batzuk bezain argi eta sakonekoak. Ordea, bereizketa eta indarkeria oraindik ere errealitatea dira LGTBI+ gazte kolektiboaz hitz egiten dugunean.
- Administrazio eta gazteen arteko distantzia handitzea elkarren arteko komunikazio erraz eta irekia ezartzeko zailtasunengatik.

Hasieratik azaldu bezala, ezinbestekoa da gogoeta sakona eta diagnosi on bat egitea zentzu honetan elkartegintza edota parte-hartzerako eredu berriak sustatzeko LGTBI+ gazte kolektiboan.

Laburbilduz

LGTBI+ gazte kolektiboaren eskubide osoko hiritartasuna eta onarpen egoera osoa oraindik ez dira errealitate bat. Ordea, bide honetan hainbat baliabide daude martxan jada eta hauek indartzea eta egin den lanean aurrerapausoak ematen jarraitzea da garrantzitsuena.

Egiteke dagoen ildo honetan, gainera, kontuan izan beharreko eta zuzentzeko arloak izango dira:

- Belaunaldien arteko komunikazioaren zailtasunak: alde batetik, belaunaldirik gazteenen sare sozialetarako joeragatik; eta, bestetik, belaunaldien arteko elkarrizketarako zailtasunagatik.
- Barne mailako eta arlo eta departamentuen arteko koordinazio falta.